



2019ko maiatzaren 17an

Arratsalde on.

Udaberrian basoetatik mugituko gara, **Basoaren erabilpen anitza** izenburu orokorrarekin bi ekitaldi antolatu baititugu.

2019KO UDABERRIA

Urtaroei erreparatuz lau ataletan banatu egiten dugu urte betea.

Udaberrian ingurua landu ohi dugu eta ingurua diogunean, besteak beste, ondokoa esan gura dugu: ekologia etxean, etxe naturala, osasuna sukaldean, airearen kutsadura, kutsadura elektromagnetiko, koloreak, argiztapena, espazioaren harmonia...

Horrela, "Basoa zura baino gehiago" izenburuarekin bi aktibitate prestatu ditugu, ondoko datetan aurrera eramango ditugunak:

- + Gaur, maiatzaren 17an: Baso-Eskola.
- + Ekainaren 20an: Baso-Bainuak.

Hemendik aurrera, zehaztasun gehiago www.lurgozo.org-en izango duzue.

GAURKO EKITALDIAREN AURKEZPENA

Hezkuntzaren aurreko legearen (LOEren) ikuspuntutik, hezkuntzak baloreak transmititzeko, elkarbizitza demokratikoa sustatzeko, norbanakoen arteko desberdintasunak errespetatzeko, elkartasuna bultzatzeko, etabarrerako balio behar zuen. LOMCEk, berriz, <<nazioarte-mailan arrakastaz lehiatzeko>> modua dela ulertzen du. Ondorioz, presio akademikoa handitu da. Curriculumak exigenteagoa da, umearen garapen ebolutiboa eta bere interesak kontuan hartu gabe. Legeak, emaitzak hobetzeko *rankingak*, banaketa goiztiarra eta errebalidak erabiltzen ditu.

Ez da harrizkoa, beraz, hazkuntza-salda honetan proposamen alternatiboak garatu izana. Hezkuntza aktiboaren benetako *boomaz* hitz egiten da: Ludus direktorioak, pedagogia desberdineko eskolak, institutuak eta haziera-taldeak jasotzen dituen Ludus direktorioak, 2013an 30 proiektu jasotzetik 2016an 800 jasotzera igaro izan delarik.

Alternatiboak, aktiboak, berritzaileak edo ez zuzenduak deituriko pedagogiek badute komunean ezaugarri bat: ikaslea bere ikas-prozesuaren protagonista da. Bere jakintza eta iritzia kontuan hartzen zaion subjektua da. Bere interesak, motibazioak eta erritmoak errespetatu egiten dira. Jokoa bere lana da, eta jokoari esker bere ingurunea eta bere burua ulertzen duela onartzen da.

Ikasketa erabat memoristikotik urruntzen da. Ahal denean, ikasleak berak bere buruari galderak egin eta erantzunak bilatzea bilatzen da, esperimintatzea bilatzen da eta betiere lehiaketaren gainetik lankidetzak bultzatuz.

Komunean puntu gehiago duten arren, bi gehiago bakarrik aipatuko ditugu. Bata, bizitzarako hezkuntza bilatzen dela eta ez lan-mundurako bakarrik. Ondorioz, ikasketa artistikoak eta gizarte-ikasketak teknikoak bezain garrantzitsuak dira. Eta bestea, zentroek funtzionamendu demokratikoa izan ohi dutela.

Eta ingurumen naturalari zer garrantzi ematen zaio?

Ingurumen naturala emari handiko iturria da, bertatik ezagutza, osasuna, inspirazioa... lortzen direlako. Hezkuntza aktiboko proiektu ugari naturan bertan lantzen dira, Eskola basoak edo baso-eskolak deitutakoak esaterako.

ESKOLA BASOAK EDO BASO-ESKOLAK

Eskola-basoetan hezkuntza naturan egiten da. Basoak izan daitezke, baina baita ortuak eta hondartzak ere; hirietan, parkeak aprobetxatuz antzeko zerbait egin daiteke. Eguraldiak laguntzen ez duenean euren aktibitateak aurrera eramateko babesleku txiki bat izan ohi dute, euria edo elur apur bat besterik ez bada, ez direlako kikiltzen.

Espainiako Erresuman <<eskola>> proiektu homologatuak izendatzeko bakarrik erabil daitekeenez –eta autonomia-erkidego guztietan ezin da era honetako proiektua homologatu-, ekimen hauek beste izen batekin ager daitezke: <<joko-taldea naturan>>, <<hezkuntza aire librean>>, <<errespetuzko pedagogia basoan>>, etabar.

Gehienek izaera ez zuzendua jarraitzen dute. Matematika, hizkuntza eta ingurumenaren ezaguera lantzen dira, baina benetako bizipenaz. Umeak zuhaitzera igo, korrikan egin eta jauziak ematen dituzte, haien mugak zein diren deskubrituz eta arriskuak baloratzen ikasiz, begirada gainbabestuetatik urrun. Joko askeari garrantzi handia ematen zaio, eta sormena eta irudimena asko estimulatzen dira, pinaburuak, adarrak eta harriak haien jolasak direlako. Naturan egiten den hezkuntza hau hurrek ingurumen-kontzientzia garatzeko modurik egokiena da.

Sortutako lehen eskola basoek, duela mende bat baino lehenago sortutakoek, beren ikasleen osasuna hobetzea bilatzen zuten. TDAHa, asma, Crohnen gaixotasuna edota artritis erreumatoidea naturaren defizitarekin eta larregizko higienarekin lotuta egon daitezkeelako.

Gaur baso-eskolen bi proiektu desberdin ezagutuko ditugu: Plisti-Plasta Eskola (Ozaeta, Araba) eta Basondartza (Ziortza-Ondarroa, Bizkaia).

Plisti-Plastaren Eskolaren izenean Andrea Lopez de Pariza eta Basondartzaren izenean Belen Lakuntza etorri dira.

NOR DA...

ANDREA LOPEZ DE PARIZA?

Plisti-Plasta Eskolako sortzailea, koordinatzailea, arduradun pedagogikoa eta bidelaguna.

BELEN LAKUNTZA?

Gizarte Hezitzaile lanetan aritua izan da eta iaz Txantxilikota eskola ezagutu zuen. Beraiek lehenengo batzarrak egin zituztenean hurrekin egoten zen.

Aurton Basoeskolaren formakuntza egiten ari den bitartean Basondartzan bidelagun moduan ari da.

Guraso-talde baten beharretatik jaiotako proiektua da Basondartza eta horiek osatzen dituzte lan-taldeak.

Belenek batzar orokorretan, komunikazio-taldean eta talde pedagogikoan hartzen du parte.

Arratsalde on bioi.

NOLA EGIN AURKEZPENA?

- 1) Hitzaldia: Hizlari bakoitzak 30-45 minutu izango ditu.
- 2) Solasaldia: Ondoren, solasaldirako 30 minutu izango ditugu.

Besterik barik, Plisti-Plastako Andrea Lopez de Parizari emango diot hitza.

Informazio gehiago:

+ García, Almudena. Otra educación ya es posible. Una introducción a las pedagogías alternativas. Ediciones Litera, 2017.

+ Bruchner, Philip. Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Ediciones Rodeno, 2017.



17 de mayo de 2019

Arratsalde on.

A lo largo de la primavera nos moveremos por los bosques, ya que, bajo el título genérico de **Uso múltiple del bosque**, hemos organizado dos actividades.

PRIMAVERA 2019

El año lo tenemos organizado en función de las estaciones.

En primavera solemos trabajar el entorno y cuando hablamos de entorno nos referimos a, entre otros temas, a los siguientes: la ecología en casa, la casa natural, la salud en la cocina, la contaminación atmosférica, la contaminación electromagnética, los colores, la iluminación, la armonía del espacio...

Así, entre mayo y junio tenemos previsto lo siguiente:

+ Hoy, 17 de mayo: Bosque-Escuela.

+ 20 de junio: Baños de bosque.

De aquí en adelante tendréis más información en www.lurgozo.org.

PRESENTACIÓN DE LA ACTIVIDAD DE HOY

La anterior ley de educación (la LOE) concebía la educación como la forma de transmitir valores, fomentar la convivencia democrática, el respeto a las diferencias individuales, promover la solidaridad, etc., la LOMCE la entiende como el medio para <<competir con éxito en la arena internacional>>. Como resultado, ha aumentado la presión académica. El currículum se ha vuelto más exigente, sin tener en cuenta el desarrollo evolutivo de el/la niño/a ni sus intereses. La ley ha buscado mejorar los resultados mediante *rankings*, segregación temprana y reválidas.

No es de extrañar, pues, que en este caldo de cultivo hayan proliferado las propuestas alternativas. Se habla de un auténtico *boom* de la educación activa: el directorio Ludus, que recoge escuelas, institutos y grupos de crianza de diferentes pedagogías, pasó de contabilizar 30 proyectos en 2013 a más de 800 en 2016.

Las llamadas pedagogías alternativas, activas, innovadoras o no directivas coinciden en un punto fundamental: el alumno o alumna es entendido como el/la protagonista de sus aprendizajes. No es tratado como un sujeto que no sabe nada y cuya opinión no importa, que recibe pasivamente las enseñanzas de la persona educadora. Por el contrario, sus intereses, sus motivaciones y sus ritmos son respetados. El juego es entendido como su trabajo, la manera que tiene de comprender el entorno y comprenderse a sí misma.

Se rehuye el aprendizaje puramente memorístico. Siempre que es posible se busca que sea el/la alumno-a el/la que se haga preguntas y busque respuestas, que experimente, y siempre fomentando la cooperación por encima de la competencia.

Aunque existen bastantes más puntos en común, sólo mencionaremos dos más. Una, es que se persigue una educación para la vida y no únicamente para el mundo laboral. Como consecuencia, las enseñanzas artísticas y las humanidades son tan apreciadas como las técnicas. Y la otra, es que los centros suelen tener un funcionamiento democrático.

¿Y cómo es considerado el medio natural?

El medio natural es contemplado como fuente de conocimiento, de salud, de inspiración... Un buen número de proyectos de educación activa se encuentran en plena naturaleza, como, por ejemplo, los llamados Escuelas bosque o bosque-escuela.

ESCUELAS BOSQUE O BOSQUE-ESCUELA

En las escuelas bosque la educación se lleva a cabo en la naturaleza –puede ser en el bosque, pero también en las huertas o en la playa; en las ciudades, se puede llevar a cabo algo parecido aprovechando los parques-. Suelen contar con un pequeño refugio para poder realizar su actividad cuando el tiempo no acompaña, aunque si solo se trata de lluvia o un poco de nieve no se amilanan.

Debido a que, en teoría en el Reino de España solo se pueden denominar <<escuela>> los proyectos homologados –y no en todas las comunidades autónomas es posible homologar un proyecto de este tipo-, estas iniciativas pueden aparecer bajo otras denominaciones, como <<grupo de juego en la naturaleza>>, <<educación al aire libre>>, <<pedagogía respetuosa en el bosque>>, etc.

La mayoría siguen un enfoque no directivo. Se trabajan las matemáticas, la lengua y el conocimiento del medio, pero de una manera vivencial. Los/las niños/as trepan, corren y saltan, descubriendo sus límites y aprendiendo a valorar los riesgos, lejos de miradas sobreprotectoras. Se concede gran importancia al juego libre, y la creatividad y la imaginación son estimuladas, al ser piñas, ramas y guijarros los juguetes. Esta educación en la naturaleza es la mejor manera de que los/las niños/as desarrollen una conciencia medioambiental.

Las primeras escuelas bosque, surgidas hace ya más de un siglo, perseguían mejorar la salud de sus alumnos/as. El TDAH, el asma, la enfermedad de Crohn o la artritis reumatoide parecen también encontrarse relacionadas con el déficit de naturaleza y un exceso de higiene.

Hoy conoceremos dos proyectos diferentes de bosque-escuela: Plisti-Plasta Eskola (Ozaeta, Araba) y Basondartza (Ziortza-Ondarroa, Bizkaia).

De Plisti-Plasta Eskola contamos con Andrea López de Pariza y de Basondartza ha venido Belen Lakuntza.

¿QUIÉN ES...

ANDREA LÓPEZ DE PARIZA?

Creadora, coordinadora, responsable pedagógico y compañera de viaje de Plisti-Plasta Eskola.

BELEN LAKUNTZA?

Ha trabajado como Educadora Social y el año pasado conoció Txantxilikota. Mientras ellas hacían las primeras reuniones se encargaba de los/las niños/as.

Este año está realizando la formación Bosquescuela, a la vez que trabaja en Basondartza.

Es un proyecto nacido de una necesidad de un grupo de padres-madres, los/las cuales conforman los diferentes grupos de trabajo.

Belen participa en las asambleas generales, en el grupo de comunicación y en el grupo pedagógico.

Arratsalde on a las dos.

¿CÓMO HACER LA PRESENTACIÓN?

- 1) Charla: Cada ponente dispondrá de 30-45 minutos.
- 2) Debate: Posteriormente, dispondremos de unos 30 minutos para debatir.

Sin más dilación, le paso la palabra a Andrea López de Pariza de Plisti-Plasta Eskola.

Para más información:

- + García, Almudena. Otra educación ya es posible. Una introducción a las pedagogías alternativas. Ediciones Litera, 2017.
- + Bruchner, Philip. Bosquescuela. Guía para la educación infantil al aire libre. Ediciones Rodeno, 2017.